

## AIKO ARMENDI-GAIN ESPARRUAN KOKATUTAKO LOKAL KOMERTZIALEN ERAIKINEAN ZENBAIT OBRA ESLEITZEKO LEHIAKETAREN OINARRIAK

### 1. SARRERA

Aiako Udalak, AIA LANTZEN, SA sozietate publikoaren bidez, Aiako Armendi-Gain esparruan kokatutako lokal komertzialen eraikinean zenbait obrak edo lan sustatuko ditu.

Esparru horretan, zortzi lokalez osatutako eraikin bat egiten hasiak dira, Gaizka Perosterena arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera. Hain zuzen, horrek hartuko du bere gain lanen zuzendaritza fakultatiboa.

### 2. LEHIAKETAREN XEDEA ETA MOTA

Une honetan, ondoren adierazten diren obrak egiteko lehiaketa planteatzen da. Lan horien aurrekontuak beheko taulan adierazten dira, (BEZik gabe), gastu orokorrak eta industria-mozkina (% 15) barne direla. Hona aurrekontuaren banakapen laburtua:

ATALA	KONTZEPTUA	KONTRATA GAUZATZEKO ZENBATEKOA	OSASUNA ETA SEGURTASUNA ZENBATEKOA
13.	Zurgintza metalikoa.	13.313.90 Euro	
14.	Aluminiozko Zurgintza.	56.279,52 Euro	
16.	Kristalak.	42.904,84 Euro	
			2.683,16 Euro

Lehiaketa irekia izango da.

Lehiaketan parte hartu nahi duten enpresa guztiak aurkeztu ahal izango dira, pertsona fisiko nahiz juridiko izanik ere, bai eta aldi baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa hartzen duten enpresa-elkarteak ere; baldin eta batzuek eta besteek Administrazioarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintza orokorrak betetzen badituzte, eta legeak jasotako debekuetan edo bateraezintasunetan sartuta ez badaude. Eskaintzaileek, banaka aurkeztu badira, ezin izango dute aldi baterako elkarte inolako proposamenik aurkeztu, eta ezin izango dira aldi baterako elkarte batean baina gehiagotan azaldu.

Armendi-Gain eremuko merkataritza-eraikinaren proiektua Gaizka Perosterena arkitektoak idatzia da (helbidea: Pablo Gorosabel 30, 1. C - 20400 Tolosa).

### 3. ADMINISTRAZIO KLAUSULAK

Lanak lehen adierazitako gauzatze-proiektuan eta horren baldintza teknikoen orrian xedatutakoaren arabera egingo dira, jarraian azaltzen diren administrazio-klausulei lotuta:

#### 3.1. Prezioak berrikustea

- Ezaugarriak eta gauzatze-epea kontuan izanda, ez da beharrezkoa izango prezioak berrikustea.

#### 3.2.- Ordaintzeko era

- Ziurtagiriak luzatu eta hurrengo hiru hilaren barruan ordainduko dira. Ziurtagiri horiek hilero egingo dira, bakoitza jatorrira eramanda, hil bakoitzaren lehen 10 egunen barruan.
- Luzatutako fakturak onartu eta ordaindu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da, ziurtagiriarekin batera, honako hauek aurkeztea:

Obran lanean dauden langileen zerrenda.

Zerrendan bildutako langileen Gizarte Segurantzako altaren fotokopia.

Gizarte-aseguruen ordainketa-ziurtagiriaren fotokopia.

Amaitutako hileko nominen ordainketa-ziurtagiria.

- Emaizazko kopuru osoa zatiketa honetatik lortutako koefizientearekin biderkatuko da: esleipendunak proposamen-orrian eskainitako kopurua zati kontrata-urrekontuari dagokion kopurua.

Zenbateko horri, hala badagokio, proiektuan jaso ez diren obra-kopuruen eta proposamenean eskainitako banako prezioen arteko biderkadura erantsiko zaio.

Ondoren, proiektuaren prezioari (lehiaketako jaitsiera edo igoerarik gabe), segurtasun eta osasunaren kontzeptuei dagozkien kostuak gehituko zaizkio, gastu orokorrak eta industria-mozkina barne hartuta.

Azkenik, BEZa aplikatuko da.

- Ziurtagiriak obren zuzendaritza teknikoak sinatuko ditu.

### 3.3.- Fidantza

- Egiaztapen bakoitzari dagokion zenbatekoaren % 5 atxikiko da, obrak behin betiko onartu aurretik fidantza osatu arte. Onarpena obrak amaitu eta 12 hilabetera izango da, obren zuzendaritza teknikoaren oniritziarekin. Atxikitakoa eta, hala badagokio, behin betiko onarpena ematean itzuliko da.

### 3.4.- Segurtasuna eta osasuna

- Enpresa esleipendunari, segurtasun eta osasunaren kontzeptuagatik, eta enkanteko jaitsiera edo igoerarik gabe, gehienez ere 2.633,16 Euro ordainduko zaizkio (BEZik gabe), eta bigarren puntuan ezarritako kopuruen arabera banatuz. Kontzeptu horren kostua segurtasun- eta osasun-planaren arabera justifikatu beharko da. Onartutako segurtasun-planaren baldintzak betetzeko segurtasun eta osasuneko kostuek kopuru hori gaindituko balute, aldea enpresa esleipendunaren kontura izango da.

### 3.5.- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta aseguruak

- Enpresa esleipendunak, gehienez hamar eguneko epean, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela justifikatu beharko du. Gainera, eraikuntzako hitzarmenari dagokion erantzukizun zibileko poliza bat kontratatuta izan behar du, gutxienez 300.000 €-koa.

### 3.6.- Eskaintza-prezioa aplikatzea

- Eskaintza-prezioaren gaineko jaitsierak edo igoerak aurrekontuan jasotako prezio guztietan izango du eragina, segurtasun eta osasunekoetan izan ezik, horiek finkoak eta justifikatu beharrekoak izango baitira.

### 3.7.- Aurreikusi gabeko lan bereziak

- Proiektuak eta/edo "Administrazioak" aurreikusi gabeko lan bereziak baleude, eraikuntzako hitzarmenean indarrean dauden orduko tarifak aplikatuko zaizkie.

Prezio horiei % 15 aplikatuko zaie, gastu orokorren eta industria-mozkinaren kontzeptuagatik.

### 3.8.- Gauzatze epea eta plangintza

- Obrak gauzatzeko epea BI hilabetekoa izango da, esleipen-kontratua sinatzen den egunetik hasita. Nolanahi ere, gauzatze-epe hori esleipendun suertatzen den enpresak eskainitakora egokituko da, obra-zuzendaritzak adieraziko duen erritmoa kontuan izanda, enpresa esleipendunak aurkeztutako obra-plangintzaren arabera.

Plangintza horretan, proiektu osoan bildutako gremio guztiak noiz sartuko diren kontuan izango da. Horietako batzuk AIA LANTZEN, SA sustatzaileak bere kabuz kontratatuko ditu.

Kontratua formalizatzen den egunetik aurrera hasiko dira obrak, beti ere gremio bakoitzaren lanean hasteko egutegia kontutan hartuta.

Obran sartu aurretik, enpresa esleipendunak segurtasun- eta osasun-plana izan beharko du, obraren koordinatzaileak onartuta.

### 3.9.- Esleitzeko irizpideak

- 1.Administrazio Kontseiluak, lehiaketa hutsik deklaratzeko ez badu, onuragarrientzat jotzen duen eskaintzari esleituko dio kontratua, haren balio ekonomikoa nahitaez aintzat hartu behar izan gabe.
- 2.Kontratua esleitzeko, oinarritzko eskaintzari eta hautabidezkoek aplikatu beharreko honako irizpide hauek eta haztapen hau kontuan hartuko dira:

1- **Aurkeztutako proposamenaren alderdi ekonomikoak**

Eskaintza merkeena 60 punturekin baloratuko da. Gainerako eskaintzak puntuatzeko, horiek eskaintza merkeenarekin alderantziz interpolatuko dira. 60 puntu gehienez

2- **Esperientzia profesionala (enpresakoa eta pertsonala) eta obrara zuzendutako baliabide propio eskuragarriak**

Enpresak lizitazioaren objektu diren lanen arloan azken hiru urteetan izan duen esperientzia profesional orokorra, eta obrara zuzendutako langileak eta baliabide propioak baloratuko dira.

0-30 puntu

3- **Obrak gauzatzeko epea**

Aurkeztutako epe laburrena hamar punturekin baloratuko da.Gainerako epeak puntuatzeko, horiek epe laburrenarekin alderantziz interpolatuko dira.

10 puntu gehienez

### 3.10.- Koordinazio-beharrak

- Obra koordinatzeagatik edo ezustean sortutako arrazoiengatik beharrezkoa izango balitz enpresa esleipendunak eskaintza honetan barne hartu gabeko baina esleitutako proiektu orokorrenarekin lotutako lan puntualen bat egitea, lan hori Zuzendaritza Teknikoak berariaz zuzenduko dio eta proiektuaren prezioetan fakturatuko da, jaitsiera edo igoerako bidezko zuzenketa-faktorearekin.
- Enpresa esleipendunak AIA LANTZEN, SArri baimena eskatuko dio esleipenaren xede den obraren zati batzuk beste enpresa

bat azpikontratatzeko, eta, betiere, AZPIKONTRATISTARI buruzko dokumentazio hau aurkeztuko du:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ordainketa-ziurtagiria.
- Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotearen ziurtagiria.

AZPIKONTRATISTAK berariaz konpromisoa hartuko du bere nominetan barne hartu gabeko eta Gizarte Segurantzaz alta eman gabeko langilerik ez erabiltzeko.

### 3.11.- Zigorrak

- Ezarritako epeak betetzen atzeratzeak BERREHUN EUROKO (200,00 €) zigorra ekarriko du berekin, Obren Zuzendaritza Teknikoaren ustez eraikitzaileari egoztekoa den atzerapenaren egun natural bakoitzeko.

### 3.12.- Onarpena eta likidazioa. Berme-epea

Kontratutako obrak amaitu ondoren, indarrean dagoen legeriaren arabera onartu eta likidatuko dira.

Obrak behin behineko onartzeko, kontratistak obren eraginpeko eremuak garbitu beharko ditu, inolako seinalerik eta obra-arrastorik gabe geratuko diren moduan. Gainera, eremu horiek, aldatu izan balira, jatorrizko egoerara lehengoratu beharko dira.

URTEBETEKO berme-epea ezarri da, obrak behin behineko onartzen direnetik zenbatzen hasita. Epe horretan, obrak kontserbatzea kontratistaren kontura izango da, eta ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango kontzeptu horregatik.

Berme-epea amaitu eta obrak behin betiko onartu ondoren, kontratua amaitutzat emango da eta, ofizioz, berme gisa gordailatutako fidantza itzuliko da.

## 4. PROPOSAMENAK

4.1.- Lehian aritzeko dokumentazioa jasotzea eta eskeintzen aurkeztepena.

Plegu hauek Aiako Udaleko "kontratatzaile profila" atalean argitaratzen direnetik hurrengo hamairu egun naturaleko epean. Dokumentazioa jaso eta esleipenak aurkezteko ordutegia goizeko 9:00etatik 14:00etara, lanegun guztietan eta honako helbide honetan:

**AIA LANTZEN, S.A.**  
Zarautz hiribidea, 82-3º  
Telf: 943- 21.23.54  
Fax: 943- 21.92.51  
20018 DONOSTIA

### 4.2.- Eskaintza aurkeztea

Eskaintza gutun-azal itxian entregatuko da, AIA LANTZEN, SAre izenean: Zarautz hiribidea, 82 - 3.a, Donostia (tel.: 943.21.23.54 - faxa: 943.21.92.51).

Eskaintza aurkeztu izanaren ordezkoko agiria entregatuko da.

Zuzeneko prozedura horri jarraitzen ez dion proposamenik ez da onartuko (esaterako, posta bidez, etab. bidaltzea).

Gutun-azalak behar bezala itxita aurkeztuko dira, bertan, enpresa eskaintzailearen izena eta inskripzioa jasota: AIKO ARMENDI-GAIN ESPARRUAN KOKATUTAKO LOKAL KOMERTZIALEN ERAIKINEAN "(obra mota) LANAK ESLEITZEKO LEHIAKETA.

Gutun-azal bakoitzean dagokion edukia adieraziko da, hots:

1. GUTUN AZALA: NORTASUNA, AHALMENA ETA KAUDIMENA
2. GUTUN AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA

### 4.3. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

1. GUTUN AZALA: NORTASUNA, AHALMENA ETA KAUDIMENA

1. gutun-azalean honakoa jasoko da:

- a) Eskaintzailearen, eta, hala badagokio, haren ordezkariaren NORTASUNAREN ziurtagiriak (azken kasuan, dagokion ordezkariaren ziurtagiria ere).
- b) Erantzukizunpeko aitortpena, kontratatzeke inolako debekutan sartuta ez egotearena eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzeari dagokionez egunean egotearena, martxoaren 1eko 390/1996 Errege Dekretuan jasotako hedaduraz eta eran (Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergari dagokionez, alta eta, hala badagokio, azken ordainagiria aurkeztu beharko da).

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzeari dagokionez egunean egotearen ziurtagiria esleipenaren aurretik aurkeztuko du esleipendun suertatzen denak, 5 eguneko epean.

- c) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren ziurtagiriak.
- d) Zerga-betebeharretan egunean izatearen ziurtagiria.
- e) Enpresak sinatutako erantzukizun zibileko polizaren fotokopia.

## 2. GUTUN AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA

2. gutun-azalean honakoa jasoko da:

- a) Eskaintza ekonomikoa, erantsitako proposamen-ereduaren arabera.
- b) Obren programa orokorra, gauzatze-epeak zehaztuta. Epeak ez dira inola ere 2 HILABETETIK gorakoak izango, guztiak ZUINKETA AKTAREN egunetik zenbatzen hasita.
- c) Kontratatistak eskuragarri duen makineria-parkea eta makineria hori obrarako erabiltzeari buruzko aurreikuspena.
- d) Obrarako zuzendutako langileak (izena eta titulazioa).
- e) Eraikuntzaren arloan enpresak azken hiru urteetan izan duen esperientzia profesional orokorra.

Enpresa eskaintzaileek bete beharreko PROPOSAMEN EREDUA erantsita dago.



#### 4.4.- Proposamenak ireki eta aztertzea

1. Lehiaketan parte hartzeko epea amaitu eta hurrengo laneguneko 13:00etan, Aiako Udalean, Kontratazio-mahaiaren aurrean irekiko dira plikak egintza publikoan.

Gutun-azal itxiaren barruan aurkeztutako dokumentazioa egiaztatzearen emaitza jakinaraziko da eta, dokumentazio horren inguruan bidezko adierazpenak egin ondoren, hala badagokio, 3 laneguneko epea emango da akatsak zuzentzeko.

2. Ondoren, eta aurrez behar diren txosten teknikoak eskatu eta gero, Kontratazio-mahaia irizpen teknikoa burutuko du eta Aia Lantzeko, SAko Administrazio Batzordeari helaraziko diote, lehiaketaren behin betiko esleipenari buruz erabaki dezan.

#### 4.5.Kontratazio-mahaia

Kontratazio-mahaia honela osatuko da:

- AIA LANTZEN, SAko LEHENDAKARIA edo horrek eskuordetzen duen Administrazio Batzordeko kidea.
- AIA LANTZEN SAko IDAZKARIA.
- Lehendakariak izendatutako AIA LANTZEN, SAko Administrazio Batzordeko bi kide.
- AIA LANTZEN, SA sozietatearen enpresa kudeatzailea den ESARBE, SAren ORDEZKARI bat.

**OHARRA:** Edozein argibide jasotzeko, AIA LANTZEN, SAra jo daiteke (helbidea eta telefonoak adierazi dira).

**ERANSKINA: PROPOSAMEN EREDUA**

\_\_\_\_\_jaunak/andreak  
(helbidea: \_\_\_\_\_; NAN zk.:  
\_\_\_\_\_) \_\_\_\_\_ enpresaren izenean eta hura  
ordezkatuz (IFK: \_\_\_\_\_; helbide fiskala: \_\_\_\_\_  
AIAKO ARMENDI-GAIN ESPARRUAN KOKATUTAKO LOKAL KOMERTZIALEN  
ERAIKINEAN "\_\_\_\_\_" LANAK esleitzeko  
ezarritako baldintzen eta eskakizunen berri izanik ADIERAZTEN DUT:

- Lan horien gauzatzea nire kargura hartzeko konpromisoa hartzen dudala, lehiaketaren eskakizunei eta baldintzei zorrotz lotuta, guztira kopuru honen truke (gastu orokorrak eta industria-mozkina barne, \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ BEZik \_\_\_\_\_ gabe):

\_\_\_\_\_ (zenbatekoa letraz eta zenbakiz); eta \_\_\_\_\_  
hilabeteko epean.

- Proiektuen edukia, administrazio-klausula berezien orriak eta kontratu hau arautuko duten gainerako dokumentuak ezagutzen ditudala, eta berariaz nire gain hartu eta onartzen ditudala, beren osotasunean.
- Ordezkatzen dudana enpresa eskaintzailea ez dagoela sartuta indarrean dagoen legerian jasota dauden Administrazioarekin kontratatzeko inolako debekutan, aipatutako lanak egiteko behar adinako ahalmen juridikoa eta baliabideak dituela, eta kontratu honetarako exijitutako berariazko baldintzak betetzen dituela.
- Era berean, lanaren eta zergen esparruko legerian edo araudian jasotakoa betetzeko hitza ematen dudala.

Data

Sinadura